

# ESSMANÍA

#REAS25urte

Ekonomia Indibidualistatik Ekonomia Solidarioa Pasatzeko Eskuliburu Praktikoak



**COVID-19 BEREZIA  
KRISIAREN  
AURREAN:  
PANDEMIA  
SOLIDARIOA**



1995 - 2020  
**25 reas**  
red de redes de economía  
alternativa y solidaria

# Zorionak: 25 urte sarean

## Ekonomia Solidarioaren alde ibiliz



#REAS25urte  
#REAS25Años

# Argitaletxea REAS Red de Redes

## Elkartasuna da bidea

Covid-19aren pandemiak hankaz gora jarri du gure bizimodua, eta lehendik munduari buruz genituen ziurtasun urriak suntsitu. Orain, begien aurrean agertzen zaigun agertokia ziurgabetasunez beteta badago. Ziurtasunen bat ere badu, ordea: oso inpaktu lazgarria izango du gizartean, eta, tamalez, horrek milioika pertsonarengan izango du eragina. Baina egoera hori ez da berria. Sistema suntsitzaile eta gupidagabe honek koska bat gehiago estutu du, besterik ez. Hamarkada (eta mende) asko dira bakan batzuek milioika lagunen bizitzak hondatzen dihardutela, euren aseezintasunaren eta diru-gosearen ondorioz. Horien biktimak dira lekualdatuak eta migratzaileak, prekarioak eta esplotatuak, baztertuak... baita bizitza eta planeta bera ere, zeinaren mugak gainditzen ari garen, geurekoikeriaz eta ergelkeriaz jokatz.

Mundua zeharkatzen ari den birus sistemiko hori aspalditik salatu dute klima-larrialdiari aurre egiteko mugimenduak, eta, lehenago, mugimendu ekologistak, baita mugimendu feministak, doako zerbitzu publiko unibertsalen aldeko oldeek, giza eskubideen eta askatasun zibilen aldeko erakundeek eta abarrek ere, ahotsa altxatuz eta egunero egiten diren ingurumen-, lan- eta gizarte-urraketak agerian jarritz. Areago: askotariko gizarte-ehun zabal hori aspaldian hasi zen

egituratzen, alternatibak eraikitzeko. Horiei esker, erantzuna eman ahal izan zaie orain baino lehen ezagutu ditugun krisialdi ugariak sorrarazitako premia askori. Eta egungo osasun-larrialdiak premia horiek sakondu eta biderkatu besterik ez ditu egin.

Argi izan behar dugu han eta hemen ugaritzen diren ekimenak, nolabait ere, aspalditik lantzen eta prestatzen ari direla. Elkarrekiko laguntza, lankidetza eta elkartasuna nekez sortzen dira eremu idorretan. Horien oinarri diren sareak eta ehunak urte askotan zehar ehundu dira, konfiantzazko harremanak sortuz kontsumo ekologikoko taldeetan, zaintza-sare informaleetan eta askotariko kooperatibetan. Lehendik dauden sare horiek, urte askotan saiakuntza eta errakuntza bidez ikasi ondoren, hainbat eta hainbat ekimen jarri dituzte martxan, erantzunak emateko eta inoiz baino ezgauzago eta zentzugabeago ageri den sistemaren zuloak estaltzeko.

Ekonomia sozial eta solidarioak ere parte hartu du azken hamarkadetan sistema kapitalistaren akatsak eta gabeziak agerian jartzen dituzten mugimenduen multzoan. Marko teoriko berri bat eratzeko ekarpenak eta proposamenak egiten ditu, eta bizitza erdigunean kokatuko duen jardun sozial eta ekonomikoari zentzua eta koherentzia

## K R I S I A R E N   A U R R E A N :   # P A N D E M I A   S O L I D A R I O A

emango dizkioten esperientzia praktikoak sustatzen. REAS Sareen Sarean 25 urte daramatzagu bide horretan, esparru ekonomiko solidario, bidezko eta jasangarriak sustatzen eta ahalbidetzen. Ibilbide luzea egin dugu eta Estatu espainiarreko ekonomia solidarioko eragile nagusia gara, sarean diharduten guztien lanari eta sorkuntza kolektiboari esker.

Honako hiru lerro estrategiko hauek ditu oinarri gure lanak: eragin politikoa, sareko lana eta ekonomia solidariorako tresnen garapena. Eta hiru lerro horiek gidatu dituzte, nolabait ere, aldizkari honen edukiak. Gure jarduera ezagutarazi eta ehunka erakunderen eta milaka lagunen ekarpenak partekatu eta ikusarazi nahi ditugu, eta ospatu. Sarea eta mugimendua osatzen duten guztien mugarri eta lorpenak

ospatu, kapitalismoaren pandemia eta horren metatze-krisi ziklikoak geldiarazteko ezinbestekoak diren ekarpenak ospatu. Horixe da, beraz, orrialde hauen helburua. Covid-19aren aurretik sortuak badira ere, inoiz baino zentzu handiagoa dute orrialdeok, egungo testuinguruan. Duela zenbait hamarkadatik eraikitzen ari garen ereduaren bidean masiboki eta irmoki aurrera egiteko aukera dugu, dagoeneko ondo ezagutzen baitugu bidea. Jarrai dezagun, bada, elkartasunaren bidetik ibiltzen. Kontua da elkarrekin ibiltzea eta gure ingurukoak pandemia solidarioaz kutsatzea.

### KREDITUAK:

Argitalpen hau REAS Red de Redes-eko Komunikazio Batzordeak koordinatutako lana da, eta REASen lurralde- eta sektore-sareetako ordezkariak biltzen ditu.

**\_Maketazioa eta diseinua:** Juan Carlos de Pablo.

**\_Hizkuntzak egokitzea:** Miguel Braña, Anna Sánchez, David Romero y eta Javier Liras.

**\_Itzulpenak:** Miguel Braña, Anna Sánchez, Belaxe, Koop.E.

**\_Testuak:** REAS Red de Redes, José Luis Coraggio, Genoveva López, Carlos Rey, Blanca Crespo, Jordi García, María Atienza, Sandra Salsón, Confluencia Feminista del FSMET.

**\_Argazkiak eta ilustrazioak:** Irudiak lurralde- eta sektore-sareek eman dituzte.


**ESKERRAK:** eskertzen ditugu argitalpen honetan borondatez parte hartu zuten pertsona guztien ekarpenak: testuak idazten direnetik bidaltzen diren arte. Edukia zabaltzea funtsezko ekintza da gure jardueraren berri emateko eta gure mezuak zabaltzeko. Beraz, aldeztu aurretik eskerrak ematen dizkizuegu material horiek zabaltzeagatik.

**#REAS25AÑOS #REAS25Anys #REAS25Anos #REAS25Urte**

Testuak, hurrenkera honetan, argitaratu dira: **Cuarto Poder, La Marea, El Salto, El Diario.es, Alternativas Económicas eta Píkara Magazine, #PorUnaEconomiaSinVirus** kanpainaren barruan.

# Herri-ekonomia solidarioa garatzea, ezinbestekoa

**José Luis Coraggio**



Kapital-metatze prozesuaren globalizazio suntsitzailearen aurrean, pandemia globala natura-subjektuak emandako erantzuna dela uler daiteke. Pandemia gainditzean, aurreikusten den finantziarizaturiko kapitalismoaren dislokazioa ez da berehalakoa izango, eta liskar gogorrek egongo dira erdiguneko estatu kapitalistek –banaka edo elkartuta– lagundutako kapital-frakzioen artean. Estatu horiek, kasu guztietan, neoliberalismo basatiaren aurreko gizarte-funtzioetatik haratago doazenak ere bereganatuta izango dituzte. Periferia, zatituta jarraitzen badu, defentsiban egongo da. Bertako gizarteak polarizatuta egongo dira, eta pobrezia eta bazterketa handiak izango dira. Erdiko eta behe-mailako klaseetako langile-gehiengoek prozesu horren inpaktua pairatuko dute, eta biziraupen hutseko estrategietara bultzatuak izango dira, hein handi batean. Kapitala gizarte-eskubideen galera areagotzen eta zabaltzen saiatuko da, eskubideok kostutzat hartuta. Era berean, naturaren espoliazioa sustatuko du. Ez da ezinezkoa izango gizarte solidarioak azaltzea, baina ez da gauza segurua.

Edonola ere, gehiengoen kargugabetzeak egiturazko ezaugarri izaten jarraituko du, eta gizarte-eskubideen arloko atzerakadak ildo hori nabarmenduko du. Gizartearen gobernagarritasunak areagotu egingo ditu pobreak laguntzeko politika publiko mugatuak. Horrek mendekotasunak sortuko ditu, mekanismo demokratikoak muturrera eramatea zailduko du, eta ia ez ditu arinduko langileen pobrezia eta bazterketa. Kultura dualista, baztertzaileria eta gehiengoak estigmatizatuko dituen nagusituko da.

## KRISIAREN AURREAN: #PANDEMIA SOLIDARIOA

Egoera horretan, lehen baino premiazkoagoa izango da posible denaren gaineko ikuspegia aldatzea. Adierazi izan dugu herri-ekonomia, langileena, ez dela hartu behar arazo diren pobreen gordailutzat; ekonomia, gizartea eta politika eraldatzeko potentziazat baizik, sozialki heterogeneoa den potentziazat. Gizarteek, oinarrian, nonahiko merkatu indibidualizatzailea izan beharrean, lurralde-erkidegoen sare konplexuak izango balituzte, autarkia ekonomiko eta autonomia politiko garrantzitsuen jabe liratekeenak, bestelako aukerak izango lituzkete pandemiaren eta pandemia-ostekoaren aurrean defenditzeko. Hasteko, berrogeialdiak komunitarioak eta iraunkorrak izango lirateke.

Illo horretan, nahitaezkoak diren larrialdiko laguntza-programekin batera, hemendik aurrera ekintza estrategikoak bideratu beharko lirateke, mesoekonomia mailan autokudeaketako eta mutualitaterako forma ekonomikoak lurraldeetan sendotu eta garatzeko. Horretarako, herri-sektoreen —komunitate indigenen, nekazarien edo hiritarren— baliabideak eta produkzio-historia onartu behar dira, hori oinarritzat hartuta produkzio-baliabideak berreskuratzeko (adibidez, indigenen lurraldeak, berreskuratutako enpresak, lur, orube eta eraikin publikoen okupazioa), baita bizibideak ere, eta, neurri handi batean, ebatsi zitzaizen ezagutza kodifikatua.

Horrenbestez, herri-ekonomiaren gaineko betiko ikuspegia gainditu beharra dago, merkataritzako mikroekimenak —norbanakoenak edo bazkideen artekoak— sustatzera bideratuta dagoena. Horren orde, erakunde-multzoak antolatu beharko lirateke, produkzioaren eta birprodukzioaren arteko batasuna berreskuratzeko, hurbiltasuneko harremanak eta naturarekiko lotura aitzat hartuta. Autonomoak liratekeen subjektu kolektiboak azaltzea ahalbidetuko litzateke, enpresa kapitalistekiko harreman simetrikoagoak finkatzeko gai izango liratekeenak, estatuari bestelako esparru juridiko batzuk eta kalitatezko ondasun publikoak eskura izateko beste modu bat eskatuko lioketenak, eta kapital pribatuaren eta horren balioen sarbidea eragozteko gaitasuna izango luketenak.

Birus neoliberaletik libre dauden lurraldeen artxipelagoa sortzen joatea da kontua, herri-ekonomia solidarioako bidean lortutako aurrerapausoak defenditzeko lubakiak zulatzea, osagarriak direla badakiten erakunde kooperatiboekin, autonomia irabaztea eta tokiko eta nazioko sistema politikora bideratzea. Beharrezkoa den autarkia (deskonexio) erlatiborako ezinbestekoa izango da teknologia-zentro propioak izatea, tokiko diru soziala, merkatuaren gaineko araudi sozialak eta esparru handiagoa hartzea sistema politikoaren barruan.



Illo horretan, pandemiaren osteko abiapuntutik, funtsezkoa izango da onartzea herri-ekonomiaren oinarri soziala ez dutela pobreek bakarrik osatzen, ezagutzarik eta antolaketa-gaitasunik gabekoek, esan nahi baita; oinarri horren barruan daude, halaber, langile kualifikatuak, zaurgarri bilakatutako profesionalak edo jarrera ideologikoagatik herri-ekonomia berri horren partaide izan daitezkeenak. Era berean, funtsezkoa da onartzea zenbait erakunde —unibertsitateak eta teknologia-zentroak, kasu—, kooperatibak, gizarte-mugimenduak eta gobernuz kanpoko askotariko erakundeak oinarri sendoa direla adierazitako proiektuak eta antzekoak identifikatu, sustatu eta laguntzeko.

Gizarte zibilak eta estatu-aparatuak onartu egin beharko lukete epe ertain eta luzerako era horretako programa estrategikoa. Muturreko demokrazia batek erdiguneko eta periferiako estatu nazionalak —guztien ongiaren ordezkariak— sendotzeko ahalegina egin beharko luke. Horrek sistema politiko parte-hartzailea eskatzen du, eta gehiengoak subjektu politiko eta sozial gisa integratzea, gizarte bidezkoagoa lortze aldera. Illo horretan, estatu-politikak bitarteko direla elkartasuna ezarri behar da, eta zentralitate handiagoa eman Herri Ekonomia Solidarioari, ez arazo gisa, sistema ekonomiko berri baten protagonista gisa baizik.

# Ekonomia sozial eta solidarioak COVID-19aren krisitik ateratzeko bidea erakusten du.

## Ezinbesteko gida pandemia-garaiotan

Genoveva López eta Carlos Rey



Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareen Sareak 25 urte beteko ditu, ospatzeko moduko urteurrena. Alabaina, **partaide garen pertsona, erakunde edota taldeoi ez zaigu inoiz burutik pasa ere egin lehenengo mende laurdena azken hamarkadetako krisialdi okerrenetako batekin batera iritsiko zitzaigunik; izan ere, orain osasun-krisia dena datozen hilabeteetan krisi sozioekonomikoa** izango da.

Ekonomia sozial eta solidarioak hobeto erantzuten die krisiei, lurraldean errotuta dagoelako eta elkartasun-sareak dituelako oinarri, hau da, egoera latzetan aktibatzen diren sareak. Gainera, ekonomia sozial eta solidarioak sarean egiten du lan, eta printzipioak, ezagutzak eta loturak partekatzen dituzten beste ekimen batzuekin uztartzen da.

Harreman ekonomikoak, sozialak eta pertsonalak ulertzeko modu horren emaitza da **COVID-19aren krisiari aurre egiteko ekonomia solidarioko ekimenen gida**. Lankidetzako tresna berri horrek askotariko ekimenak erakusten ditu, salaketakoak, erresistentziakoak eta alternatiboak, Estatuko zenbait lurraldetan aurrera eramaten ari direnak, hainbat sektoretan: ingurumena, kontsumoa, zaintzak, kultura, hezkuntza, finantzak, defentsa juridikoa, laneko arloa, produkzioa eta abar.

Gidak agerian uzten du **ekonomia solidarioaren printzipioak direla kapitalaren pandemiaren aurkako txertorik onena: ekitatea**, printzipio etikoa eta justiziazkoa berdintasunari dagokionez; **lana**, dimentsio gizatiarra, soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala berreskuratuta, biztanleriaren benetako beharrak asetzeko; **ekologismoa**, naturarekiko aliantza eta eskubideak abiapuntu direla; **lankidetza**, modu kolektiboan gizarte-eredu jakin bat eraikitzeko, oinarritzat hartuta tokiko garapen harmonikoa, bidezko merkataritza-harremanak, berdintasuna, konfiantza, erantzunkidetasuna, gardentasuna eta errespetua; **irabazi-asmorik eza**, sortutako irabaziak sozializatzea, eredu ekonomiko bidezkoago baten alde, eta **ingurunearekiko konpromisoa**, lurraldearen tokiko garapen jasangarrian eta komunitarioan parte hartuz.

Gidan, **azken egunotan egin diren kanpainak** ikusiko ditugu, **alokairuen greba**, adibidez, eta baita **ekonomia sozial eta solidarioko ekimenen gordailua** ere, eguneroko bizitzan sortzen diren zailtasunei elkartasunez aurre egiteko Europako herrialdeetan eta munduan – Espainian, Portugalen, Frantzia, Suitzan, Italian, Grezian, Polonian – sortzen ari diren ekimenen bilduma.

**Tokiko kontsumoan oinarritutako alternatibak** ere badaude, **nekazaritza ekologikoan diharduten nekazarietzako handizkako barne merkatua**, esaterako, jatetxe, hotel eta jantokiak itxi dituztela-eta saltzen ez diren elikagai ekologikoei irtenbidea emateko; edo **Baserriko Plaza**, Covid-19aren krisiari aurre egiteko baserriarrek eta eragile informatikoei euren borondatez sortutako tresna. Ekimen oso garrantzitsua izan da **auzoetan tokiko kontsumo arduratsuko zirkuituak eraikitzeko herriarren laborategia**. Osasun-krisiak iraun bitartean, oinarritzko beharrak asetzeko tokiko saltoki jasangarriak erakusten dituzten mapa birtualak kolektiboki eraikitzeko ekimena da, nahitaez elikagaitate handietara jo beharrik ez izateko. **Mercado Social de Madrid** erakundeak sustatu du lurraldean sustraitutako ekonomia-sareei laguntzeko ekimena. Azkenik, **Carro de Combate** taldeak **8 ideia** proposatu ditu #NiEtxeanGeratukoNaiz garaian geure kontsumoa birpentsa dezagun.



#FonsCooperatiuESS

**Economia  
per la Vida!**



Zaintzen arloak, beti ikusezin, funtsezkoa dela erakutsi du pandemia honetan, gordinki erakutsi ere. *Cotidianas* proiektuko emakumeek egokitu egin dute duela hilabete batzuk eraikitzen hasi ziren **elkar laguntzeko sarea**, eta **kate-deiak** proposatu dituzte, konfinamenduan ere elkar laguntzen eta zaintzen jarraitzeko: partaide batek soka hasten du beste bati deituz, beste horrek beste hari deitzen dio, hark hurrengoari... Gainera, **zaintza-sare** ugari sortu dira, **Euskal Herrian** eta **Andaluzian**, esaterako. Murtzian **inprimaki** bat prestatu dute, osasun zentroetarako, egoitzetarako eta, orokorrean, oinarritzko zerbitzuetako langileentzako **maskarak eskatzeko**.

Kultur ekimenak era badaude, La Casa Encendida zentroko ikus-entzunezko topaketak, adibidez. **Ikus-entzunezko** pilulak, 35 minutu inguruko hitzaldi inspiratzaile batekin hasten direnak, eta jarraian beste 25 minutuko eztabaida-saio interaktiboa eskaintzen dutenak. Era berean, **ekonomia sozial eta solidarioaren gaian sakondu** nahi dutenentzat, ERESek elkarriketak antolatu ditu Jitsi bidez, asteazken eta ostiraletan, 18:00etatik aurrera.

Ekonomia sozial eta solidarioko enpresek hain beharrezko izango dituzten finantzei dagokienez, hor dago **#CoronaZero** Goteoren kanala; Covid-19ak eragindako krisiari aurre egiteko ekimenen esku jarri du bere crowdfunding eta crowdsourcing plataforma, % 0ko komisioarekin. Modu berean, ekonomia sozial eta solidarioko erakunde katalanak Gizarte eta Osasun Larrialdirako Lankidetzak Fundazioa sustatzen ari dira, ahalegin kolektibo horien guztien iraunkortasuna bultzatzeko eta 26 ekimeni laguntzeko; hain zuzen, ekimen horietan maskarak eta mantalak josten ari dira, 3D biserak egiten, nekazaritza ekologikoko produktuak ekoitzi eta banatzen, pertsonak zaintzen eta telelana bideratzeko teknologia libreak garatzen, besteak beste.

Gidan, halaber, **aseguruak kudeatzeko Arç Cooperativaren baliabideen multzoa** azaltzen da. Aseguru-etxeekin negoziatuz, bezero diren pertsonen eta erakundeen laguntzeko prozedura berezia prestatu du Arç Cooperativak, aseguru-programak bideratu eta horien kostua doitze aldera. Beharraren eta aseguru-etxeen prestasunaren arabera, zenbait neurri jarri ahal izango dira abian, hala nola primak doan finantzatzea, estaldurak bertan behera uztea eta primak itzultzea, edota urteko kostuaren gaineko deskontuak aplikatzea.

Aholkularitza juridikoaren esparruan, **AKAB (Askatasun Kolektiboetarako Abokatuak)** elkarteak aholkularitza juridikoko kontsulta-zerbitzua abiatu du, poliziaren gehiegikeria pairatu duten pertsonentzat. Lan egitera behartzen bazaituzte, edo salbuespenezko egoera honen inguruan zalantza juridikoren bat baduzu, jar zaitez harremanetan abokatu-sare horrekin. Mercado Social de Madrid erakundea Covid-19aren krisiari aurre egiteko neurriei buruzko **informazioa biltzen** ari da **sareko aholkularitza-zerbitzuen** eskutik, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeentzat garrantzitsua den informazioa, zehazki.

Krisi-egoeretan, baliabideak modu ekitatiboan kudeatzeko borondate sozial garbia egoten da, inor ez dadin atzean geratu eta desparekotasunak murriztu daitezkeen. Aldi berean, askotariko ekimenen inguruan lankidetzak altruista mobilizatzen da, zaintzei lehentasuna ematen zaie, eta elkartasuna izaten da krisia gainditzeko jarrerarik eta interdependentzia-tresnarik onena. Onartu beharko genuke ekonomia eta elkartasuna ez liratekeela krisialdian bakarrik bateratu behar, beti baizik; izan ere, baten batek zioenez, «espezie zaurgarria gara eta solidario izan beharra dugu, egoismoagatik».

# «Ekonomia eraldatzaile gehiago dituen ekonomia batek erresilientzia handiagoa du gizarte-berdintasunaren, jasangarritasunaren eta demokrazia ekonomikoaren arloetan»

**Blanca Crespo**

Egungo pandemiak eta horren ondorio den krisialdiak hautu garrantzitsu baten aurrean jarri gaitu berriz ere: lehengo sistema bidegabe eta jasangaitzera itzuli nahi dugu ala apustu irmoa egin nahi dugu beste eredu baterako trantsizioaren alde, adibidez ekonomia solidarioak eta gizarte-mugimendu eraldatzaileek proposatzen digutenaren alde?

REAS Sareen Sarearen inguruan begiratu dugu erantzunak bilatzeko, eta elkarrizketa bikoitza egin dugu: alde batetik, **Colectiva XXXK-ko Amaia Pérez Orozco eta Silvia Piris, eta, bestetik, Bartzelonako Udaleko Ekonomia Sozialaren, Tokiko Garapenaren eta Kontsumoaren Batzordeko Álvaro Porro**, guztiak ere sarearekin bat datozenak eta sarean maitatuak. Egungo sistemaren akatsak azaleratzen eta beharrezko trantsizio horretarako aztarnak bilatzen jardun dugu haiekin.



**1.- Álvaro:** Ekonomia solidarioan gogoko dugu «oikonomia» hitzaren jatorri etimologikoari begiratzea, horrek «ekonomia» hitzak baino esanahi zabalagoa baitu, imajinario kapitalistaren arabera kontzeptutik urrunagokoa. Zer uzten dugu kanpoan, bada, ekonomia logika kapitalistaren arabera ulertzeko modu horretan?

**Álvaro:** Nik beti hitz egiten dut icebergaren tontorrean dauden bi geruza ikusezinei buruz. Egunkarietako ekonomia-sekzioko orrialdeetan agertzen den ekonomia produktiboak ezkutatzen ditu geruza horiek. Bata gure ekonomiako eta bizitzako jardueraren oinarrian dauden ekosistemei dagokiena da, eta, orain ikusi dugun bezala, edozein unetan desegonkortu daiteke. Bestea, berri, ekonomia erreproduktiboari eta zaintzei dagokiena da, eta, ikusten ez den arren, ekonomia produktiboak eta bizitzak aurrera egitea ahalbidetzen du. Beraz, hori guztia alde batera uzten du ekonomia konbentzionalak.

Bestalde, ekonomia produktiboak ikusezin bihurtu du ekonomia horren zati bat, zentzu zabalean ekonomia sozial eta solidarioa (ESS) deritzoguna. Azken horrek agerikoagoa izan beharko luke, guk askotan uste duguna baino pisu handiagoa baitauka Barne Produktu Gordinean (BPGd-ean) eta enpleguaren sorreran. Bartzelonan, adibidez, BPGd-aren % 7koa eta enpleguaren % 8koa izan daitekeela kalkulaten da. Ekonomia produktiboaren hirugarren hanka da, ez baita ez sektore publikoa ez merkataritza-enpresen sektore pribatu konbentzionala. Halere, zeresan handia dauka, batik bat zabaltzen ari diren testuinguru berrietan.

**2.- 2- XXX:** Egungo larrialdian, zer ikas dezakegu gure zaintza-sistematik?

**XXX:** Egungo egoerak agerian jarri du lehen ere ikusten genuena: egoera berria da, baina gaizki funtzionatzen duenaren oinarriak ez dira berriak. Gaur egun, agerikoagoa eta tragikoagoa da lehen esaten genuena: zaintza-sistemak ez duela funtzionatzen, zaintzak ezin direla pribatizatu, baldintza prekarioan eta guztiontzako zerbitzuetatik kanpo ematen ari direla, zaintzarako eskubide kolektiboa ukatzen ari dela... Eta bizi garen munduaren oinarria da hori guztia.

Berriena da, beharbada, hori ez dela hain ikusezina orain. Agerian geratu da bizitza zaindu egin behar dela, eta kolektiboki zaindu behar dela. Gai horretan hainbeste urtez jardun ondoren ikusten ari gara hori, horixe da gure meritua eta ezin dugu ukatu lortutako. Arazoa hau da, ordea: ikusten ari gara zer gertatzen den, baina ez dugu behar bezala ikusten, ikuspegi okerretik begiratzen diogulako.

Ez gara eztabaidatzen ari, adibidez, lanak txarto banatuta daudela; eta ez gara zalantzan jartzen ari bizitzarako lanik garrantzitsuenak egiten dituzten langileek erabakitze gaitasunik txikiena dutela eta lan-baldintzarik txarrenetan dihardutela. Era berean, ez ditugu zalantzan jartzen etxe barruko lanak, politizaziorik ezaren eremu nagusia da hori. Zaintza-sistema aldatu ahal izateko, askoz gehiago sakondu behar dugu eztabaida horretan, eta ikuspegi feminista batetik heldu.



**3.- Sistema globalizatu honen esternalizazioaren eta espezializazio produktiboaren ondorioetako batzuk ikusten ari gara egunotan. Nolako eragina izango luke birlotalizazio ekonomikoak lurraldeen garapenean?**

**Álvaro:** Mugimendu sozial edo aurrerazaleetan ondo pentsatu behar dugu zer eragin-tresnei buruz ari garen, birlotalizazioaz hitz egiten dugunean; alegia, kontsumitzaileak tokiko produktuak erosteko borondatezko eskariaz ari garen, ala tokiko produktua lehenetsiko duen kontratazio publikoaz ari garen. Izan ere, horrek aldaketa handiak ekarriko lituzke legerian, batez ere Europakoan, gaur egun ezin baita jatorriaren arabera diskriminaziorik egin produktuetan. Era berean, munduko merkataritzaren erregulazioaz ere hitz egin beharko genuke. Batzuetan, oso baztertuta geratu da eztabaida hori, eta guztiz lerratua eskuin muturrera, ikuspegi protekzionista baino arkaikoen bidez.



Hori esanda, argi dago ekonomien birlokalizazioa lagungarri izango litzatekeela gure ekonomien dibertsitatearako, produktu eta zerbitzu gehiago landu ahal izateko. Beraz, ekonomia guztietan egongo lirateke maskarak eta arnasgailuak egiteko fabrikak. Eta elikagaien sektoreari dagokionez, eredu lokalizatuagoak eta lurralde-oreka handiagoa ekarriko lituzke. Prozesu horretan beste erronka batzuk zabaltzen zaizkigu; adibidez, produktu jakin batzuk garestitzea, edo ekonomia digitalak planteatzen dizkigunak: hasieran kontrakoa zirudien arren, sektore horretan gero eta handiagoak dira boterearen kontzentrazioak eta oso joera oligopolistiko indartsuak, baita monopolistikoak ere batzuetan. Hori dela eta, ESSak sakonki aztertu behar du zein diren elementuak eta erronkak, aurrean dugun testuinguru sozioekonomikoan.

**4.- Derivas izeneko proiektu batean ari zarete lanean, sistema honek gure eguneroko bizitzan duen eragina ulertzea helburu duena. Horretan, zenbait ardatz jorratu dituzue nagusiki, hala nola elikadura-burujabetza, batetik, eta enplegua gure sistema ekonomikoaren eta ogibidearen erdigunetik kentzea, bestetik. Zergatik dira horren garrantzitsuak trantsizio horiek?**


**XXK:** Gauza gutxi dira geure burua elikatzea baino ohikoagoak eta esanguratsuagoak: nola iristen diren elikagaiak etxera, nola kudeatzen dugun elikadura etxean, zer kontsumo-eredu dugun... Elikadura eraldatzea ez da bakarrik jaten duzuna aldatzea; horrez gain, lurraldearen antolamendua, beste estatu edo herrialde batzuekiko harremanak, lurren egituraketa eta banaketa-sareak eraldatzea dakar. Gure elikadurari erreparatzen badiogu, argi ikus dezakegu noraino dugun sustraitua sistema hau: janari agroekologikoa garestia den argudioa argitara atera daiteke (eta atera behar da!), proposamen horiek elitiskak ez izateko modua bilatzeko. Baina argudio hori erabiltzen badugu gure gastuen lehentasunak ez aldatzeko, tranpa egingo dugu. Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da elikadura-burujabetza. Halere, oraindik ez dugu askatu korapilo hau: zer betekizun du ikuspegi feministak horretan, elikakatea handitzeaz eta kate-maila guztietako harremanak zalantzan jartzeaz gain?

Eta enplegua... sekulako gaia! Lanaren inguruko gaietan arakatu nahi genuen, ez genuelako proposamen feminista argirik. Gure bizitzak lan-dibertsitatearen inguruan antolatzen dira; ezin diogu alternatibarik eman lan jakin bati, enpleguari bere osotasunean heldu gabe. Ez genuen erori nahi enplegua erdigunean jartzeko ikuspegi kapitalistan edo androzentrikoan, baina, azkenean, enpleguari buruz hitz egin dugu, erdigunetik kenduta bada ere. Horrek haustura handia dakar feminismoaren adar batekin, zeinak enplegua jartzen duen (edo, hobeto esanda, jartzen zuen) emakumeen emantzipazioaren zutabe gisa. Gure ustez, kapitalismoan lan egiteko modu alienatua da enplegua. Enplegua helburu gisa ez izateak ez du esan nahi bizitza- eta finantza-autonomiari uko egiten diozunik, baizik eta autonomia hori beste bide batzuetatik lortu nahi duzula. Azkenik, arreta handia jarri dugu guregan ere eragina duten logika produktibista horietan eta lana ulertzeko eraiki nahi ditugun beste modu horietan.

**5.- Ekonomia eraldatzaileez hitz egiten da duela zenbait urtez geroztik. Zer dira zehazki eta zer ekarpen egiten diote guztion onurari, tokiko ikuspegitik?**

**Álvaro:** Jarduera ekonomiko eta enpresarialez osatutako ekosistema bizi-bizia da ekonomia eraldatzaileena, nire ustez. Jarduera horiek nolabait ere ohiko eskematik aldentzen dira eta ez dute kapitalaren errentagarritasuna erdigunean jartzen. Hor askotariko ekosistema bat aurki dezakegu: alde batetik, antzinako errealitate batzuk daude, nahiko sendoak edo, behintzat, nolabaiteko sendotasun ekonomiko eta finantzarioa duten eragileek bultzatuak; bestetik, errealitate berriak edo desmonetarizatuak ditugu, alde ekonomikoaren eta sozialaren arteko erdibidean daudenak eta nekez zehaztu daitezkeenak.

## Ecosistema de economías transformadoras



Koadro honen bidez agerian jartzen da dibertsitate hori, «ekonomia eraldatzaileak» izenaren barruan sartzen ditugun ekimenak hartzen baititu barne, adibidez honako hauek: kooperatibismoak (etxebizitzakoa, irakaskuntzakoa, lanekoa, kontsumokoa, nekazaritzakoa...); hirugarren sektorea; ekonomia solidarioa, kolaboratiboa edo komunitarioa; eta gizarte-mugimenduak, hala nola mugimendu feminista, deshazkundera eta ekintzailetza soziala. Haietako batzuek indar handiagoa jartzen dute horizontaltasunean eta gobernu demokratikoan, eta beste batzuek eragin sozioekonomikoan edo ekologikoan.

Ekonomia eraldatzaile horiek guztion onerako egiten duten ekarpenari dagokionez, lehenik eta behin esan daiteke jarduera ekonomiko eta enpresarial horiek lehen aipatu dudan ekonomiaren dimentsio ikusezin hori jasotzen dutela modu zuzen eta agerikoan. Bestalde, jarduera horiek berdintasun handiagoa sortzen dute aberastasuna banatzean, eta demokrazia handiagoa erabakiak hartzean. Horren ondorioa da, adibidez, egungo krisialdian kooperatibismoak askoz enplegu gutxiago galtzea eta galdutakoa lehenago berreskuratzea, 2008ko krisialdian gertatu zen bezala. Beraz, ekonomia eraldatzaile gehiago dituen ekonomia batek askoz erresilientzia handiagoa du gizarte-berdintasunaren, aberastasun-banaketa-aren, jasagarritasunaren eta demokrazia ekonomikoaren arloetan, hau da, sektore publikoaren helburuak izan beharko luketen horietan. Hori dela eta, sektore publiko ez-instituzionala dela esaten dugu.

## 6.- Dauden alternatibak ere aztertzen ari zarete zuen ikerketan. Zer jardunbide aurkitu dituzue?

**XXX:** Ere guztietan daude alternatibak, asko eta askotarikoak: talde autogestionatuak, kooperatibak, erakunde feministak, «auzogestioa» (auzoak, auzotik eta auzorako egindako autogestioa)... Saiatu gara egunerokoan dauden eztabaidak agerian jartzen, zaintzen (ez baitiegu perfekzioa eskatzen) eta nola bilbatzen diren ikusten. Era berean, interesgarria iruditzen zaigu eremu alternatibo horretan gertatzen diren dinamika produktibistak eta heteropatriarkalak identifikatzea, begirada samurra galdu gabe. Gure ekimenek erreproduzitu egiten dituzte dinamika horiek; sistemak kontraesanetan murgiltzen gaitu etengabe. Horiek ikustea aurrera egiteko modua da. Azkenean, zentzu bateratu eta integrala eman nahi izan diegu. Izan ere, batzuetan isolatu egin ditugu, zatikatu, baina horrela ikusita ez digute balio. Halere, collage baten moduan ulertzen baditugu, beharbada eremu sendago bat emango digite, hori lantzeko.

Argi utzi nahi dugu ekonomia sozial eta solidarioa beti egon dela hor: elikadura-burujabetzan, zaintza-eredu kolektiboetan... Eta, jakina, enplegua tronutik kentzeko moduetan. Guztion helburuetako bat lanpostu atseginagoak izatea da, eta, askotan, horretarako bidea ez da soldatapeko lanpostu bat izatea, baizik eta enpleguaren ideia (soldatapeko lan kapitalista) hausten duen lan bat asmatzea. Gure ustez, enpleguaren zentraltasuna hausteak hiru gauza esan nahi ditu: lana eduki sozialaz betetzea eta gorputz-lurraldea zaintzea, bizitza desmerkantilizatzen joatea, eta soldatapeko lan kapitalistatik bizitzarako denbora ateratzea. Ekonomia sozial eta solidarioa bete-betean sartzen da lehen bi apustuetan. Hirugarren haustura horretan gatazka gehiago ikusten ditugu, agian. Izan ere, normalean larrua uzten duzu lanean...



**7.-Zer politika publiko ezarri behar dituzte administrazioek lurraldeen tokiko garapenerako, justizia, ekitatea, elkartasuna eta jasangarritasuna irizpide hartuta?**

**Álvaro:** Oso galdera zabala da. Tokiko garapenaren ikuspegitik eta termino ekonomikoetan aztertuta, beharrezkoak dira tokiko eragileen bitartekaritza-politikak edo nazioarteko inbertsiogileak erakartzeko politikak, baina, horiez gain, harreman birlokalizatuen garrantzia azpimarratuko duten neurriak ere behar ditugu, bai eta sareak, ehunak eta trukeak tokiko logika batean egituratzeko beharrari erantzuna emango dioten neurriak ere. Hori elementu garrantzitsua da.

Beste elementu bat ekonomiari zeharkako ikuspegi batez begiratzea da, hasieran aipatu ditudan geruza horiek aintzat hartuz: ekosistemak, ekonomia erreproduktiboa eta, ekonomia produktiboaren barruan, ekonomia sozial eta solidarioaren hanka, ez baita ez pribatua ez erabat publikoa. Eta ekonomia ikusezin horiek agerian jartzeaz gain, garrantzi handikoa da sektore publikoaren eta hirugarren hanka horren arteko aliantza bat sortzea, biek ere balio partekatuak dituztelako eta elkarri lagundu diezaioketelako. Sektore publikoak bere sendotasuna eta finantza-gaitasuna eskaini ditzake, eta ESSak bere dinamismoa eta bere gaitasuna, antolamendu-modu berriak sortzeko eta indar soziala aktibatzeko, paradigma eta jarduera berrien inguruan.

Era berean, garrantzitsua iruditzen zait ESSa gai izatea politika publikoetan parte hartzeko, alderdi instituzionalean; ESSa ezagutzen duten pertsonak egotea hanka instituzionalean, maila politikoan edo teknikoan; ESSa sektore publikoaren hornitzaile izatea, eta, era berean, administrazioak eskari-gaitasun indartsua izatea, kontratazio publikoa sistema bidezkoago eta jasangarriago baten traktore izan dadin. Nire iritziz, administrazio publikoa berritu egin behar da bere funtzionamenduaren alderdi batzuetan, aurrean ditugun erronka askori aurre egiteko. Hala, ekologiaren eta teknologiaren arloetan, gai izan behar dugu helburu berriak sumatu eta horiei aurrea hartzeko, sektore publikoaren bultzada aprobetxatuz testuinguru eta aukera berriak sortzeko, historiako beste garai batean egin dugun bezala.



**8.- Behar dugun paradigma-aldaketak beste bizitza-imaginario bat eskatzen du. Zer ekarpen egingo zenikete kontakizun horri, egungo ereduari atxikita daudenek bizitzaren jasangarritasuna aintzat hartuko duen eredu berri baterako trantsizioaren alde egin dezaten?**

**XXX:** Borroka kulturala inoiz baino biziago dagoela diozu... hobe egongo balitz! Behin eta berriro esaten badugu ere ez dugula lehengo normaltasunik nahi, nolabait ere guztiok nahi dugu normaltasunera itzuli, batez ere ni nahiko ondo nengoela uste badut edo balizko ordezkari eredu horretan egongo nintzatekeen baino hobeto nengoela uste badut.

Une hauetan, bi eremu nagusi daude eragiteko: zaintza-sareak eta elikadura-sareak, biak ere berreraiki beharrekoak. Bizitzaren ahultasunarekin eta bizitzako oinarritzko gauzekin konektatzeko aukera handia dugu, baina konexio hori ez da automatikoa. Ez ikusia egin nahi diogu arazo bati: guztiontzat ez da posible izango normaltasunera itzultzea. Gauzak birlokalizatzeak eta geure burua birlokalizatzeak unean gaude. Oso kanpora begira bizi ginen, mugarik gabeko munduan. Gure hurbileko munduan birlokalizatzeak bizi garen espazioa birpentsatzera behartzen gaitu: orain dena dago itxita, argi eta garbi ikus dezakegu gure auzoa hilda dagoela, etxe itxiak besterik ez dituela, bizitza partekatzeko espaziorik gabe.

Zaintza, elikadura, hurbileko espazioen berrantolakuntza eta denboren banaketa. Horiek dira guretzat oinarritzko korapiloak borroka kulturala zabalik mantentzeko eta eguneroko bizitzarekin konektatzeko, bizitzaren ahulezia eta interdependentsia aitortuta.



# Eraldaketa ekosozialerako ekonomia solidarioa

**Jordi García Jané**



REASek 25. urteurrena beteko du 2020an, inflexio-puntu gisa luzaroan gogoratuko den urtean.

Beharbada, gizartearen birsorkuntza hasi zeneko unea izan zela gogoratuko dugu, boteretsuen erresistentzia izugarria garaitu ondoren gizateria mundu bidezko eta iraunkorra eraikitzen hasi zenekoa. Baina, halaber, litekeena da 2020a egungo zibilizazioak pairatuko duen kolapsoaren azken abisuari entzungor egin genion urtea izan zela gogoratzea: urte batzuk barru, zibilizazioak ezin izango dielako aurre egin lehordeen eta klima-hondamenduen kateari, azken baliabide naturalez jabetzeko gerrei, eta pobretze orokorraren eta kontzientzia-, antolaketa- eta alternatiba-faltaren ondorioz sortuko diren helburu argirik gabeko matxinada jendetsuei.

Badakigu Covid-19a kapitalismo globalak aurrera daraman habitaten eraispenaren emaitza dela, beste bat, eta epidemia are hilkorragoa bilakatu dela berrogei urtez indarrean izan diren politika neoliberalen ondorioz; izan ere, politika horiek osasun alorreko eta ikerkuntzako baliabideak murriztu dituzte, mugikortasun jasanezina bultzatu dute, eta produkzio-sektoreak osorik deslokalizatu dituzte. Hortaz, ez da harritzekoa bata eta maskarak ere Txinatik iristea. Eta, era berean, badakigu mundu mailako beste atzeraldi baten atarian gaudela, non miseria, berotze globala eta autoritarismoa areagotuko diren, baldin eta ez badugu hori guztia saihestu eta krisialdia aukera bilakatzen.

## Mugimendu sendoa

REASek aukera aprobeztatzeko lagun dezake. Batez ere ekonomia sozial eta solidarioa ez delako espekulazio teoriko bat, milaka emakume eta gizonen eguneroko jarduna baizik, lan egiteko, kontsumitzeko eta finantzatzeko bestelako modu bat partekatzen dutenena. Gaur egun, sortu zenetik 25 urte igaro ondoren, REAS erabat sendotuta dagoen sareen sarea da. Hainbat ekimen biltzen ditu, gehiago atzeratu ezin dugun eraldaketa ekosozialerako estrategikoak izango diren sektoreetan erreferente direnak: agroekologian, zaintzen demokratizazioan, hirugarren gizarte-sektorean, finantza etikoetan, diru sozialetan, teknologia libreetan, energia berriztagarrietan, ahalduztzen duten kultura eta hezkuntzan, birziklapenean, erabiltzeko lagatako etxebizitza kooperatiboan...

Gainera, REASek zenbait tresna garatu ditu ekimen horiek nabarmendu, sendotu eta egituratzeko. Ildo horretan, gogoan ditugu balantze eta ikuskaritza sozialak, finantza etikoen ekosistema, ekintzailetza kolektiboaren sustapena, ekonomia sozial eta solidarioarekin bat datozen lankidetzak, sare-lanaren inguruko esperientziak.

## Bestelako merkantilizazioa

Tresna horietako asko lagungarri zaizkigu merkatu sozialak eraikitzeko; horixe da, hain zuzen, ekonomia solidarioarako helburu estrategikoetako bat. Merkatu kapitalista – globalizatu eta harrapakaria, botere politikoarekin elkar hartuta dauden korporazio handien zerbitzuetara dagoena – aurrean dugula, merkatu alternatibo bat eraikitzen ari gara. Ekoizleek eta kontsumitzaileek demokratikoki arautuko duten merkatua nahi dugu, tokian tokiko garapena sustatuko duena, lankidetzak eta elkartasun-mekanismoak bideratuko dituen, ahalik eta herritar gehienek euren beharrak ekonomia kapitalistatik kanpo ase ditzaten lagunduko duena.

Baina, ekonomia sozial eta solidarioak zergatik nahi du bere merkatua sortzea? Lehenik eta behin, merkatu soziala sortuz, enpresa-multzo ia egituratu gabea izatetik sistema ekonomiko bihurtzera igaroko delako, hau da, ekonomia bat izatera, eskala txikian bada ere. Bigarrenik, kapitalismoaren aurrean bestelako aukerak badaudela erakutsiko duelako, eta proposatzen duen alternatibaren erakusleho bikain, ikusgarri eta bizigarria izango delako. Hirugarrenik, merkatu sozialak ekonomia solidarioko enpresen bideragarritasuna hobetuko duelako eta haiek hobeto eutsiko diotelako kapitalaren enpresekin bat egiteko presioari. Gainera, gaur egun pairatzen ari garenaren pareko krisialdi ekonomiko eta ekologikoen aurrean, enpresa horiek erresilienteagoak izango dira. Laugarrenik, «pertsona berriak» sortzen lagunduko duelako, pertsona kritikoagoak, aktiboak eta eraldatzaileak, ekonomia solidarioaren balioak berenganatuko dituztelako, eta merkatu sozialak autonomia, kontzientzia kritikoa eta antolatzeko gaitasuna ekarriko dielako. Eta, bosgarrenik, sistema ekonomiko postkapitalista baten hazia izan litekeelako, iraultza sozialeko garai batean horrelako sistema bat zabaltzeko abiapuntua.



Baina ekonomia solidarioaren aldeko mugimendua ezin da mugatu merkatu sozialak sortzera. Sistema kapitalistan, merkatu sozialek egiturazko mugak aurkituko dituzte, hegemoniko izatea galaraziko dietenak, oraindik ere horrelako merkatuak zabaltzeko eremu zabala dugun arren. Eta, gainera, guztia ez delako nahitaez merkatutik igaro behar, merkatu sozialetik ere ez.

## Merkantilizaziotik at

Ekonomia solidarioak bi estrategia zabaldu behar ditu aldi berean. Batetik, sektore ekonomiko batzuetan bestelako merkantilizazioa bideratu behar du, gizartean beharrezkoak diren produktuak eta zerbitzuak merkatu sozialean saleros daitezzen. Bestetik, ekonomiaren beste zati bat merkantilizaziotik atera beharra dago, ezinbestekoak eta estrategikoak diren ondasunak, behinik behin. Merkantzia izateari utzi behar diote, beharren arabera banatu ditzagun eta ez diru-truk.

Horixe da ekonomia solidarioaren bigarren helburu estrategikoa: bizitzarako funtsezkoak diren ondasunak merkantilizaziotik ateratzea denon eskura jartzeko, guztiok eskuragarri izan ditzagun eta kolektiboki kudea ditzagun. Beraz, ondasun komunak zaindu eta sortzeaz hitz egiten ari gara, ondasun materialak eta immaterialak: software eta hardware librea, ezagutza irekia, ekipamendu eta gune publikoen kudeaketa komunitarioa, edota baliabide naturalena, urarena adibidez, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperatiben bidez.

Merkantilizaziotik ateratzeko prozesu horretan, halaber, sektore publikoak ekonomia solidarioaren balioak bereganatu behar ditu. Sektore publikoa egoki hornituta egon behar da, eta hazi, baina, aldi berean, desestatalizatu egin behar da; hau da, enpresa eta zerbitzu publikoak langileen eta erabiltzaileen parte-hartze erabakitzailearekin kudeatu behar dira, eta kontuak gardenak izateko eta herritarren eskura jartzeko mekanismoak bermatu behar dira.

## Eragile soziopolitikoa

REASek 25 urte bete ditu. Gehiago eska diezaiokegu, erakundeari eta geure buruari, nagusiak baikara. Arloko erakundeak salbatu behar ditugu, barne elkartasuneko eta elkarri laguntzeko neurrien bidez. Ekonomia soziala eta solidarioa laguntzeko politika publikoa blindatu behar dugu. Merkatu soziala eraikitzen jarraitu behar dugu, ondasun komunak sortzen, eta ekonomia solidarioen balioak gizartera eta erakundeetara zabaltzen. Baina, era berean, bizitzen ari garen gizateriaren historiako aro erabakigarri honetan, REAS eta modu konfederalen partaide dituen sareak eragile soziopolitiko garrantzitsu bilakatu behar dira, eta elkar hartu behar dute beste mugimendu emantzipatzaile batzuekin (feminismoarekin, ekologismoarekin, sindikalismo borrokalariaekin...) eta harbera diren administrazioekin, erreforma sozioekonomikoen plan handia aurrera eramate aldera, horrelako egoerak sortzen dituen sistematik atera eta krisialdi berri hau gaingitzea ahalbidetuko duen plana, alegia.

# Pandemiari aurre egiteko politika publikoen inguruko proposamenak, ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) ikuspegitik

**María Atienza eta Sandra Salsón**

COVID-19ak eragindako pandemia hirukoitzak (osasunaren, ekonomiaren eta zaintzen arloetan) hautsi egin du egungo eredua, eta agerian utzi ditu oinarritzko zerbitzuetarako (hala nola osasun-zerbitzurako) baliabide publikoen zuzkiduran zeuden gabeziak, zainketa-sistemaren hauskortasuna eta sare ekonomikoaren zati handi baten prekarizazioa.

Berreraikuntza-testuinguru berria ikuspegi desberdin batetik abiatuta planteatu beharko litzateke, aurreko normaltasunera itzul ez gaitezen, normaltasun horrek bizibaldintzen prekarizazioa, larrialdi klimatikoa, feminista eta migrazio-arlokoa eta gure metabolismo ekonomikoaren, sozialen eta ingurumenari lotutakoen hauskortasuna baititu ezaugarri.

Ekonomia Solidarioan, egungo pandemia hirukoitz honetatik irtetea eta eredu berri baterako trantsizioa hastea proposatzen dugu. Eredu horren barruan, justizia- eta ekitate-irizpideetan oinarrituta bideratuko dira politika sozialak eta ekonomikoak, gizarte- eta ingurumen-arloan jasagarria izango den garapen baten sustapenaren esparruan, eta erakunde adierazgarriek, erakunde eta mugimendu sozialek eta herritarrek berek parte hartu ahal izango dute bultzatu beharreko norabide politiko eta ekonomikoan, sakontze demokratiko handiagoa lortu ahal izan dadin.

Ondoren garatuko ditugun proposamenek, gizarte-inklusioko eta gizarte-kohesioko politiken bitartez, bizitzaren jasagarritasunerako eta pertsonen zerbitzura egin beharreko eredu-aldaketa horretarako bidea erakutsiko digute.



Ekonomia sozial eta solidarioaren

**HEDATZEA**

ESSaren II KONGRESUA

*Ekonomia eraldatzeko garaia da!*

BILBO, AZAROAK 10, 11 eta 12

## GIZARTE-INKLUSIOKO ETA GIZARTE-KOHESIOKO POLITIKAK

### Gizarte kohesionatu eta inklusibo baten alde

Garapen soziala benetan sustatuko duen ekonomia bat bultzatzeko, lehentasunezko hartzen ditugun arloak sendotu behar ditugu politikoki, teknikoki eta aurrekontuetan. Lehenik eta behin, oinarritzko errenta eta bonu soziala (elektrizitatea, ura eta abar) aplikatu behar dira eta, enpresa handiek ez ezik, beste edozein merkaturatze-erakundek ere izan behar dute horiek kudeatzeko aukera. Halaber, bereziki azpimarratu beharra dago enplegu inklusiboa sustatu behar dela gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen lan-kualifikaziorako jardueren, pertsona horiek programa publikoetan eta enpresa pribatuetan kontratatze pizgarrien eta laneratze-enpresak sustatzearen bidez. Era berean, komeni da etxebizitza kudeatzeko eredu berriak bultzatzea eta, horretarako, erabilera-lagapeneko erregimenari lotutako lankidetzak-etxebizitzaren kooperatibetarako lurzoru publikoa erreserbatzea, alokairu sozialeko etxebizitzaren parke publikoa sustatzea, belaunaldi arteko etxebizitzaren inguruko ekimenak garatzea eta abar.

## BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO POLITIKAK

### Ekonomia solidario, feminista, ekologiko eta komunitario baten alde

Irmo egin behar da bizitzaren jasangarritasuna jarduketarantz bihurtuko duten politiken alde. Horretarako bide bat ongizate komunitarioaz arduratzen diren agente guztiak ekintza espezifiko bidez konprometituko dituzten erantzunkidetasun-planak abian jartzea eta, ildo horretan, zainketen lana eredu ekonomikoaren barruan pertsonen bizitza garatzeko funtsezko eremu gisa txertatzea izan liteke.

Bestalde, petrolioaren mendeko sistema honen barruko energia-baliabideen urritasuna gero eta handiagoa den testuinguru honetan eta klima-aldaketaren inguruko alerta ugarien aurrean, premiazkoa da energia-eredua aldatzea, garraio publiko eta mugikortasun ez-kutsatzailea sustatzea, energia berriztagarrien sorkuntza eta merkaturatze publikoa bultzatzea eta, horretarako, gizarte-ekimeneko kooperatibak eta energia-komunitateak sustatzea.



Hori guztia elikadura-burujabetzaren eta burujabetza agroekologikoaren defentsarekin osatu beharko litzateke, tokiko produkzio agroekologikoa aktibatze eta zerbitzu publiko guztietan (eskoletan, egoitzetan, 0-2 urtekoen ikasgeletan eta abar) elikadura osasungarria eta jasangarria (0 km-koa) sustatzeko gizarte-klausulak eta merkatu-erreserbak ezartzeko neurrien bidez.

Kasu horietako askotan, auzoetan eta toki-eremuetan ekonomia komunitarioak bultzatzen dituzten jarduerak (hiri-baratzeak, truke-azokak, denbora-bankuak eta abar) aliatu bikainak dira horrelako neurriak garatu eta bultzatzeko.

### ESSa funtsezko pieza gisa:

- Zainketen sektoreko langileei laguntzea, zerbitzuen prestazioa ESSko enpresen bitartez antolatu ahal izan dezaten.
- Energia-pobreziari aurre egiteko estrategia bat bultzatzea.
- 0 hondakineko politika bat garatzea eta ekonomia sozial eta solidarioko enpresak hondakinak kudeatzeko zerbitzuen emailatzat hartzea.
- Tokiko produkzio agroekologikoari eusteko eta sendotzeko laguntzak ematea eta produkzio osoa banaketa-puntuetara irits dadin erraztea.
- Elikadura-burujabetzako eta agroekologiako irizpideei jarraitzen dieten supermerkatu kooperatiboak eta kontsumo-taldeak sustatzea eta haiek sortzeko eta haiei eusteko neurriak hartzea.

## PERTSONEN ZERBITZURA EGONGO DEN EKONOMIA BATERAKO POLITIKAK

Ekonomia sozial eta solidarioak tresna garrantzitsuak eskaintzen ditu pertsona guztien premiei era jasangarrian erantzungo dien jarduera ekonomiko bat sustatzeko.

Lehenik eta behin, Bidezko Merkataritzaren aldeko apustua egin beharko genuke, eta Europa 2020 Estrategia eta Agenda 2030 izenekoa betetzeko eta kontratazio publikoan bidezko merkataritzari eta hornidura-kateetako gizarte-baldintzen arretari lotutako irizpideak bilduko dituzten gizarte-klausulak txertatzeko tokiko ekimenak bultzatu beharko genituzke. Ildo horretan, logika ez-espekulatiboetan oinarrituta dauden produkzio eta kontsumoko truke-sareak sustatu beharko lirateke (hala nola gizarte-merkatuak), eta, horretarako, kontsumo kritiko, jakitun eta eraldatzailea sustatzeko plan espezifikoak landu eta garatu, eta hurbileko produktuak, agroekologikoak, artisautza-izaerakoak eta abar eskainiko dituzten merkatu tradizionalak berreskuratu beharko lirateke.

Herritarren premiei erantzuteko gai izango den eta gure autonomia areagotuko duen produkzio-sare propioa sendotzeko esparruan, premiazkoa da ekintzailetza kooperatiboa sustatzea eta, horretarako, ekonomia sozial eta solidarioaren figuretara bideratutako enpresa-suspertzeko eta enpresa-eraldaketako prozesuak bultzatzea, gune fisikoak eta baliabideak lagatzea eta/edo ematea eta ekonomia sozial eta solidarioko enpresak finkatzeko ildoak garatzea.

Horretarako guztirako, funtsezkoa da finantza etikoak sustatzea eta, horretarako, administrazio publikoen finantza-jardunbideetan finantza etikoetarako tresnak txertatzea. Era horretan, duela hainbat urtez geroztik erakutsi duten bezala, guztion onuraren zerbitzura dauden finantza-tresnak indartuko dira.

## ESSa funtsezko pieza gisa:

- Interes komunitarioko zerbitzuak eta ondasun komunak kudeatzeko zerbitzu publikoen kooperatiben eta kooperatiba mistoen sorkuntza bultzatzea.
- ESSko erakundeen kapitalizazioa bultzatzeko mekanismoak sustatzea eta abal-lerroen osagarriak izango diren berme-funtsak bultzatzea.
- Merkaturatze-zirkuitu laburrei lehentasuna ematea eta, ildo horretan, hurbileko eta tokiko merkataritza babesteko neurriak barnean hartzea eta saltoki handien hedadura mugatzea.
- Domestic Fair Trade izenekoa garatzea, produktuak nork eta zer baldintzatan produzitu ditzakeen argituko duen arau-erregulazio bat zehaztea eta Ekonomia Sozialaren Legian Bidezko
- Merkataritzaren gutxieneko erregulazio bat txertatzea.



# arduratsuKontratatu



## GUZTION ONURARAKO POLITIKAK

Gaur egun nagusi den garapen-ereduak tokikoa denari lotuta egongo den ikuskera baterantz abiatzeko bidea hartu behar du, toki-ahalmena sortzeko eta herritarrentzako baldintzak eta aukerak hobetzeko lurralde-mailako esku-hartze estrategia gisa. Ikuskera horrek giza garapena sustatuko du, honako printzipio hauetan oinarrituta: aukera-berdintasuna, jasangarritasuna, parte-hartzea eta ahalduntzea eta giza eskubideen bermea.

Ildo horretan, funtsezkoa da ondasun komunak zaintzea eta, horretarako, ondasun horiek (naturalak, hiri-izaerakoak eta digitalak; nolanahi ere, modu publiko, sozial eta komunitarioan kudeatu beharrekoak) identifikatu eta babestea eta lurraldearen zaintza eta babesa sustatzea.

Eremu horren barruan, funtsezko beste alderdi bat tokiko garapena eta berrikuntza da. Horretarako, gizarte-intereseko zerbitzuak kudeatzeko garapenerako lankidetzat publiko-sozialerako estrategiak garatuko dira, tokiko politika publikoak bultzatzean herritarrek parte hartzeko guneak eta tresnak sustatuko dira eta enpresa erantzunkide, agroekologiko, jasangarri eta feministei zuzendutako sustapen-neurriak eta diskriminazio positibokoak hartuko dira.

## ESSa funtsezko pieza gisa:

- Ikuspegi sozial, ekologiko eta feminista batetik garapen-helburuak jasoko dituen toki-ekonomiako plan estrategiko bat identifikatzea.

- Ekonomia sozial eta solidarioa gizarte-berrikuntzarako tresna gisa sustatzea eta krisi ekosozialen aurrean lurraldeen erresilientzia bultzatzea.

- Erakundeek kudeaketa ekonomikoaren auditoria publikoak eta parte-hartzean oinarritutakoak egitea (kontrol- eta gardentasun-tresnak bermatuz) eta toki-garapena eta politika publikoek guztion onura lortzeko duten egokitasun-maila neurtzeko auditoria sozialeko adierazleak erabiltzea.

## ALDAKETA EKOSOZIALERAKO HEZKUNTZA-POLITIKAK

Ekonomia Solidarioan, askotariko jakintzen, ezagutzen eta esperientzien elkartrukea sustatuko duen hezkuntza bat defendatzen eta bultzatzen dugu. Horretarako, herritarrak paradigma ekonomikoa, politikoa eta soziala aldatzeko premiaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina publikoak bultzatu nahi ditugu.

## ESSa funtsezko pieza gisa:

hezkuntza-curriculumaren etapa guztietan ekonomia solidarioari lotutako edukiak txertatzea.

Pandemiaren mehatxuak salbuespenaldia ekarri du, eta, aldi horretan gaudela, munduaren zati handi baten lehentasunak aldatzen ari direla dirudi.

Arazo larri baten gizarte-kontzientziak erakusten digunez, borondate politikoarekin pertsonak babes daitezke, politikak goitik behera alda daitezke eta osasuna eta bizitza ardatz bihurtu daitezke. Alabaina, zergatik da salbuespena hori? Bizitza, pertsona guztiak eta gure planeta babesteak izan behar du lehentasuna «normaltasun berrian».



# EKONOMIA FEMINISTA, ERALDATZEN ARI DEN MUNDU BATERAKO<sup>(1)</sup>

## Ekonomia eraldatzaileak antolatzeko beharra

### EEMFSen bateratze feminista

Ekonomia eraldatzaileak (ekonomia sozial eta solidarioa, ekonomia feminista, ondasun erkideak, ekonomia ekologikoa...), ekonomia-eredu nagusia zalantzan jarri eta paradigma-aldaketa sustatzen duten proposamenak dira (2). **Jarduera ekonomikoa antolatzeko beste modu bat oinarri duten esparru teorikoak eta esperientzia praktikoak dituzte abiapuntu.**

Ekonomia horiek elkarren artean antolatzeko nahitaezkoa da bat-egite prozesu bat, trukeak eragiteko eta ezagutza partekatuak sortzeko, premiazkoa eta beharrezkoa den paradigma bideratze aldera. Ikuspegi kolektibotik hitz egitea, adibidez, ezinbesteko baldintza da ikuspuntu ezberdinak eta inplikaturako askotariko eskualde eta herriak kontuan hartzeko, azken finean, jakintzen ekologia eraikitzeko (3).

Premisa horiekin eta egungo pandemiaren aurrean, jarraian azaltzen diren gogoetak egin dituzte **Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Sozialaren** prozesuaren barruan sortutako Confluencia Feminista feministen elkargunean. Testu honetan bi kontinentetako feministok hartu dugu parte eta, gutxienez, zazpi herrialde izan dira elkarriketan.

(1) Bat-egite Feministak kolektiboki egindako artikulua, REAS Sareen Sareak parte hartzen duen espazioa.


(2) *Suriñach, R. Economías Transformadoras de Barcelona.* Marge Books (2017)

(3) *Boaventura de Sousa Santos* (2007)

### Feministen bat-egitea COVID-19aren aurrean

COVID-19aren pandemiari aurre egiteko ezohiko konfinamendu-baldintzetan, larrialdiaren eta ziurgabetasunaren erdian bizitza zaintzea izaten da eguneroko erronka gure gizarteetan, betiere etorkizun hurbilari begira, mundua jada ez baita berdina, eta ez da izango, azkar eraldatzen ari da.

### Ekonomia Pandemikoen aurrean bat egite feministak



Erronkari erantzunez, lehen lerroan, emakumeok lanak, ezagutzak eta proposamenak mobilizatu ditugu, zaintzaren logika jakin batekin – feminismoarentzat alternatiben ardatza den horrekin –, baina aurrez aurre ditugu desparekotasun eta bidegabekeria zaharrak eta berriak, kasu askotan egoerak larriagotu egin dituenak. Garaiotan mundua konturatu da zaintzarik gabe ezinezkoak direla bizitza eta ekonomia, eta agerian gelditu da, halaber, krisialdi honetara eraman gaituen kapitalismo neoliberalaren desoreken maila.

### Ez dugu itzuli nahi esplotatzen gaituen «normaltasunera»

Biziki eta modu kontraesankorrean nahasten diren arazoen eta alternatiben erdian, gero eta argiago dago premiakoa dela bizitzarako ekonomia baterantz joatea. Hala:

«Aurreko bizitzan», sistemaren ezaugarri diren emakumeen gehiegizko lana eta indarkeria matxista salatzen genituen, gaur egun areagotu egin diren arazoak: **konfinamenduak etxeetan biltzera eraman gaitu, eta gune horiek sarritan prekarioak dira. Betiko bizilagun, jarduera eta lanak ditugu bertan, eta baita berriak ere.** Betiko zaintza-lanekin bateratu beharko dira era birtualean etxera ekarritako eskola, telelana eta beste. Eskema horri eutsi egingo zaio urruntze sozialaren hurrengo etapan ere, aldaketa txikiren batekin. Ez da aurrerapausoa, inola ere ez, benetako zaintza-sistemarako bidean. Are gehiago, atzerapausoa da lehenago ere mugatuak ziren zaintzak antolatzeko moduetan; izan ere, haietan, baliabideak, denborak eta guneak uztartzen ziren, hau da, familia- eta gizarte-sareak, erakunde zerbitzu-emaileak, ikastetxeak –kasu batzuetan eskola-elikadura barne hartzen zutenak–.

Horrekin batera, familia-eredu jakin bat jarri da berriro ere antolaketa sozial eta ekonomikoaren erdigunean, familia-eredu nuklearra, androzentrikoa eta heteropatriarkala, genero-indarkeriaren gorakada dakarrena, herrialde askotan izan den salaketen ugaritzeak erakusten duenez.

Beraz, zaintzek bizitzarako eta ekonomiarako duten garrantzia eta zentralitatea onartzen dira, baina, aldi berean, atzerakada gertatu da zaintza-baldintzetan. Egitate hori aldatzea lehentasuna da,

eta, era berean, aldaketa hori ekonomiaren beste mota bateko suspertzearekin lotuta dago.

Betidanik feminizatuta egon diren osasun-zerbitzuetan –sarritan doikuntza neoliberalaren eta merkantilizazioaren ondorioz prekarizatuta dauden horietan–, emakumeek hartu dute beren gain Covid-19aren biktimak artatzeko lanaren zatirik handiena, lanaldi nekagarriekin, babes gutxiko egoeretan, kutsatzeko arriskuan, eta, zenbaitetan, hiltzeko arriskuan jarrita. **Osasun publiko unibertsala lehentasunezkoa izanik, funtsezko giza eskubide hori bermatzeko, osasun-langile diren emakumeon desparekotasuneko baldintzak gainditu behar dira eta farmazia-industriaren merkataritzako profil pribatua birdefinitu; izan ere, krisiaren erdian, industria farmazeutikoa bere botere korporatiboa erakusten ari da.**

Supermerkatu-kateak eta elikagaien negozio korporatiboak aberasten ari dira erosteko ahalmena duten sektoreak hornitzen; bien bitartean, nekazaritza-ekonomiatik, ekonomia sozial, solidario eta komunitariotik, ahaleginak egiten ari dira biztanleria osoari oinarritzko elikagaiak helarazteko. **Agerian gelditu denez, garrantzi estrategikoa dute tokiko ekoizpenak eta sare sozioproduktiboetan, elkartasunean eta osagarritasunean oinarritutako erantzuna emateko ahalmenak. Orain, berrogeialdiko murrizketen erdian, erantzun hori askotarikoa izaten ari da.** Beraz, nabaria da emakumeek bultzatutako esperientzien potentziala, bizitzaren jarraitutasunerako eta zaintzarako oinarritzko beharrei erantzutearekin lotuta.





Pandemiak azaleratu eta nabarmendu egin ditu desparekotasunak, eta, aldi berean, aitzakia bihurtu da gobernuko eta gizarteko faxismo-moduek gora egin dezaten. Zaurgarritasun ekonomikoak diru-sarreraren bat-bateko murrizketa edo etena dakar, kutsatzeko aukera asko eta zaintza jasotzeko aukera gutxi, lan prekarioan diharduten emakumeen, migratzaile eta errefuxiatu direnen, espetxean dauden eta abarren kasuan. Klasismoaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren gorakada handia izan da, eta horren eraginez aipatutako sektoreei leporatu zaie birusa hedatzearen ardura; ildo beretik, erabili eta botatzeko bizitzak daudela, horietako batzuk bideragarriak ez direla, zabaldu da. Gizartearen kontrol-jarrerak sustatzen ari dira, eta ez elkartasunekoak.

Aurreko hilabeteetan izandako neoliberalismoaren aurkako gizarte-mobilizazioen dinamikan berrogeialdia inflexio-puntua izan da. Mugikortasuna murrizteko neurriak indarrean direla, ekimen berriak sortzen ari dira, elikadura-eta osasun-premia nagusiei erantzute aldera. Emakumeek adierazpeneko, harremanak izateko eta elkartasun-ekintzarako modu alternatiboak jarri dituzte martxan. Ez dira beste krisi-garai batzuetan abiarazitako herri-jantokien edo antzekoen mailakoak, baina lagundu egiten dute, besteak beste, nekazarien elikagai ekologikoak erosten, ekonomia solidarioko unitateetako xaboi eta maskarak erosi eta sektore babesgabeen artean banatzen.

**Pandemiak markatu duen bizitzaren edo heriotzaren atarian, begi-bistakoak dira agenda eraldatzailea osatzeko gaiak, eta hazten ari da bizitzarako ekonomia baten beharrari buruzko kontzientzia, bizitzaren konturako ekonomia atzean uztekoa.**

Hori agerikoa den arren, agenda inertzialak ikusten ditugu, baliabide publikoak eta sozialak berriro ere «merkatuak» eta enpresak salbatzera bideratzen dituztenak, zorpetzean oinarritutako formulak errepikatzen dituztenak, lehendik ere gehiegi zorpetuta zeuden estatu- eta familia-ekonomien gaineko presioa areagotzen dutenak. Beste profil bateko erreakzioak ere ari gara ikusten, babes sozialeko neurriak onartu dituztenak: osasunaren eta zaintzaren eskuragarritasuna handitzea, oinarritzko errentak ziurtatzea, diru-transferentziak edo langileentzako ordaindutako baimenak bideratzea, bereziki osasun- eta zaintza-langileak laguntzea eta abar. Neurri horiek beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoa, aurretik zeuden arazoek tamaina kontuan hartuta.

Bizitzaren jarraitutasunarekin konprometitutako ingurune ekonomiko eta sozialen aldetik, indartu egin da lehentasunak aldatzeko agenda, produkzioa antolatze, elkartruckerako edo kontsumorako moduak aldatzea xede dituenak. Pandemiak adierazten duen kapitalismoaren porrot garbiaz gain, proposamen eraldatzaileei oinarriak eta tresnak ematen dizkieten esperientzia piloa dago: finantza-arkitektura berria, justizia fiskala, bidezko merkataritza, diru alternatiboak, ekonomia sozial eta solidarioa, agroekologia, elikadura-burujabetza eta abar.

Etxebizitzaren, hezkuntzaren, oinarritzko diru-sarreraren eta osasunaren alorretan guztion oinarritzko beharrei erantzutea lehentasuna denez, nahitaezkoa da fortuna handiei zergak ezarri beharraren inguruan kontsentsu sozial zabala lortzea, eta ekonomia suspertzeko modu alternatiboen alde egitea. Ildo horretan, birdefinitu egin behar dira sozialki beharrezkoak diren lanak eta biozida direnak, eta lan- eta produkzio-eskema berrien arabera birmoldatu, ikuspegi ekofeministak aitzat hartuta.

Modu kolektiboan eusten ari gara, ez dugu espazio publikoa uzten, beste batzuetan ugaritzen ari gara. Ekonomia berri bat diseinatzen ari gara, pazientziaz ehuntzen diharduguna, hobe izango den gizateriara eramango gaituena.

## BIZITZARAKO EKONOMIA, EZ BIZITZAREN KONTURA

# FIESTA VIRTUAL #REAS25AÑOS

#REAS25URTE  
#REAS25ANYS  
#REAS25ANOS



jaietan etorri  
REASekin!

**VIERNES 19 DE JUNIO A LAS 13H**

<https://meet.jit.si/REAS25Aniversario>

El evento tendrá lugar como cierre de celebración de la  
asamblea de REAS Red de Redes.

Y si no puedes estar, escúchalo en  
[www.youtube.com/reasreddereds](http://www.youtube.com/reasreddereds)

**"SI NO SE PUEDE BAILAR,  
ESTA NO ES MI RED"**

¿CONOCES LOS ENTRESIJOS DE  
REAS Y LA ESS?

**JUEGA EL TRIVIAL  
DE LA ECONOMÍA SOLIDARIA**

entra y enrédate con la ESS:

[Click aquí](#)



**25** 1995 - 2020  
**reas**

Ekonomia solidarioarekin jolastu eta  
Sareari eta mugimenduari  
buruz dakizuna erakutsi. Estekan sartzera  
gonbidatzen zaitugu, eta  
ESSren Tribialean sartzera. Joko hori  
zabaltzen joango gara urtean  
zehar, gure urteurrenaren urtean.  
Kontsultatu oinarriak eta sariak.

**Parte hartu eta ENREDATU ZAITEZ!**

